

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

856

EBAZPENA, 2026ko otsailaren 12koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez gauzazko laguntzak ematen baitira euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko.

2025eko irailaren 10ean, EHAAren 171. zenbakian, Lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2025eko irailaren 3ko Agindua argitaratu zen, zeinaren bidez euskal kultura-ondarea katalogatu, digitalizatu eta kontserbatzeko gauzazko laguntzak arautzen diren, Euskariana euskal kulturaren atari digitalaren bidez hedatzeko, eta 2025ean proiektuak aurkezteko deialdia egiten zen.

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko urriaren 10ean amaitu zen, agindu horren 8.1 artikuluari jarraikiz.

Aginduaren 12. artikuluan aurreikusitako Balorazio Batzordea bildu, eta, eskabideak aztertu ondoren, proiektuak baloratu zituen aginduaren 13. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren zuzendariaren ebazpen-proposamena ikusita, eta aipatutako Aginduaren 15. artikuluan eta gainerako xedapen orokorretan ezarritakoarekin bat etorrira, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— I. eranskinean zerrendatzen diren pertsonen/erakundeen gauzazko laguntzak ematea, eranskin horretan zehazten diren proiektuen eta kostuen arabera.

Kultura Ondarearen, Jabetza Intelektualaren eta Lege Gordailuaren Zuzendaritzak egikaritu dituen onetsitako proiektuak. Beraz, onetsitako proiektuen onuradunek ez dute jasoko inolako zenbateko ekonomikorik.

Bigarrena.— II. eranskinean zerrendatutako pertsonen/erakundeen aurkeztutako eskabideak atzera egindakotzat jotzea.

Hirugarrena.— Ezeztea III. eranskinean jasotako pertsonen/erakundeen aurkeztutako eskaerak, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Laugarrena.— Gauzazko laguntzak arautzen dituen Aginduak ezarritako baldintzak bete beharko dituzte pertsona eta erakunde onuradunek, bai eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eremuan indarrean dauden gainerakoak ere.

Bosgarrena.— Pertsona eta erakunde interesdunei banan-banan ematea ebazpen honen berri, eta ohartaraztea ezen onartu egin dutela ulertuko dela, laguntza eman zaiela aditzera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean ez badiote espresuki uko egiten.

Seigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea, denek horren berri izan dezaten, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Dirulaguntzen Araubidea erregulatzeko duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 26. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz.

AZKEN XEDAPEN BAKARRA

Ebazpen honek ez dio amaiera ematen administrazio-bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsua aurkez dakioke Lehen lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluetan xedatutakoa betez.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 12a.

Kulturako sailburuordea,
ANDONI ITURBE AMOREBIETA.

I. ERANSKINA
ONETSITAKO PROIEKTUAK

Eskatzailea	Espedientea	Proiektua	Puntuazioa guztira	Proiektuaren kostua (€)
Eresbil Fundazioa. Musikaren euskal artxiboa	002-KOD-2025	Discos de pizarra pertenecientes al fondo Echevarrieta – Larrinaga	69,94	19.956,00
Eresbil Fundazioa. Musikaren euskal artxiboa	001-KOD-2025	Rollos de papel perforado pertenecientes al fondo Echevarrieta – Larrinaga (Fase 2)	69,92	19.954,59
Langile Abertzaleen Batzordeak	007-KOD-2025	LAB (Langile Abertzaleen Batzordeak) Sindikatuaren Ondarea	67,47	10.982,50
Arabako Foru Aldundia	008-KOD-2025	Digitalización de la colección fotográfica 'L&P Fotógrafos'	67,16	19.305,00
Ruth Barbara Goenaga Bilbao	011-KOD-2025	Digitalización, preservación y catalogación del material gráfico no encuadernado de Juan Luis Goenaga (1968-2024)	61,72	14.284,00
Ruth Barbara Goenaga Bilbao	012-KOD-2025	Digitalización y catalogación de los cuadernos de artista y las películas Super 8 de Juan Luis Goenaga (1968-2024)	60,62	14.186,34
Guztira				98.668,43

II. ERANSKINA

ATZERA EGINDAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Espedientea	Zergatia
Goizaldi Dantza Taldea	005-KOD-2025	Atzera egitea
Fundación Juan Luis Goenaga Fundazioa	010-KOD-2025	Atzera egitea

III. ERANSKINA

EZETSITAKO ESKAERAK

Eskatzailea	Espedientea	Zergatia
Donostia Kultura EEP	003-KOD-2025	Ezetsia, ez baita beste digitalizazio bat behar eskatzailearen premiei erantzuteko.
Donostia Kultura EEP	004-KOD-2025	Ezetsia, ez baita beste digitalizazio bat behar eskatzailearen premiei erantzuteko.
Pablo Salgado Mendez	006-KOD-2025	Ezetsia deialdiaren oinarriak ez onartzeagatik.